

2020 EKAINA

A1. $\text{CH}_3\text{CH}_2\text{COOH}$ azido propanoikoaren ur-disoluzio baten 100 mL-an 0,74 g azido daude, eta pH-a 2,95 da. Kalkulatu:

- a) Azido propanoikoaren disoluzioaren kontzentrazioa. (0,50)
 b) Azidoaren disoziazio-gradua. (1,00)
 c) Azido propanoikoaren ionizazio-konstantea. (1,00)

C3. Ozpin komertzial baten CH_3COOH azido azetikoaren edukia neurtu nahi da. Horretarako, ozpin horretatik 10 mL hartu eta baloratu egingo dira NaOH-aren disoluzio 1 M bat erabiliz.

- a) Adierazi zer tresna eta material erabili behar diren hori egiteko. (0,25)
 b) Azaldu balorazioaren prozedura marrazki baten laguntzaz. (1,00)
 c) Idatzi balorazioan gertatzen den erreakzioaren ekuazioa. (0,25)

2020 UZTAILA

A3. Base ahul baten (MOH) disoluzio akuoso bat prestatzen da, eta haren kontzentrazioa 0,05 M da. Basea % 0,10ean disoziatu dagoela jakinda, kalkulatu:



- a) Disoluzioaren pH-a. (1,00)
 b) Basearen ionizazio-konstantea (K_b). (1,00)
 c) Zenbat mL H_2SO_4 0,1 M behar da MOH basearen 100 mL disoluzio (0,50) neutralizatzeko?.